

LAGUNTZAILEEN TXOSTENA

Ensemble, construisons un monde meilleur en relevant le défi climatique ! • Let's build a

Juntos construyamos un mundo mejor, respondiendo al desafío climático !

BAIONA

Alternatiben Herrixka

13/10/06

ALTERNATIBA

FONDATION
un monde
par
tous

REPORTERRE
Le site de l'écologie
www.reporterre.net

FONDATION
POUR UNE
TERRE
HUMAINE

bast!
www.bastmag.net



bizi !
www.bizimugi.eu

better world under the climate challenge ! • Elgarrekin, mundu hobeto bat eraiki dezagun, erronka klimatikoari aurre eginez !

جميعا من أجل بناء عالم أفضل برفع التحدي المناخي

**ELGARREKIN, MUNDU HOBE BAT ERAIKI DEZAGUN,
ERRONKA KLIMATIKOARI AURRE EGINEZ**

ALTERNATIBA

Alternatiben herrixka



BAIONA 13/10/06



Desarauketa klimatikoa areagotzen eta lastertzen ari da, oraindanik planetako populu behartsuenak eta epe ertain baten buruan bizitza zibilizatuaren baldintzak lanjerrean ezarriz.

Alta, beroketa klimatikoari buru egiteko konponbideak badira, trantsizio energetikoari buruzko bideak biderkatzen dira; jadanik elkarte, gizabanako, herri eta eskualde ainitzek probatu dituzte munduan zehar. Milaka alternatiba horiek eguneroko gizarte neurritsuago, atseginago eta solidariago baten eraikuntzan parte hartzen dute.

Zatozte Alternatibara haien deskubritzera, Alternatiben herrixka Baionan (Euskal Herria), 2013ko urriaren 6an gertatuko dena, GIEC edo klimaren bilakaeraz gobernuarteko aditu taldearen 5. txostenaren argitaratzearen zenbait egunen ostean.

Elgarrekin, mundu hobe bat eraiki dezagun, erronka klimatikoari aurre eginez!

Stephane Hessel

Alternatiba, klima aldaketaren aintzinean beste hautabideen herrixka

2013ko urriaren 6an igandearekin, goizeko 10:00tik arratseko 22:00 arte, Alternatiba biharko mundura buruzko trantsizio herriaren izena izanen da, Baionaren bihotzean kokatua.

Alternatiba aldi berean pesta herrikoia eta aldaketa klimatikoari, ekologia eta energiaren krisialdiari buru egiteko alternatiba indibidualen, kolektiboen eta lurralde mailakoan Herrixka izanen da.

450 boluntariok antolatua, Alternatibak 10 000 pertsona bilduko ditu paradaren kari oinezkoa bilakatu Baionako zentroaren zati batean (Espainiako karrikaren eta Mousserolles-eko atearen artean, Baiona haundi eta ttipian)

Alternatibak diozue?

Karrika edo plaza bakotxa gai bati lotua den alternatiba bati lotua izanen da, adibidez bertokiratzearen karrika, laborantza herrikoia eta iraunkorraren plaza, autoari alternatibarena edo konponketa eta birziklatzearena.

Karrikaz karrika, gauzatze eta alternatiba konkretuak zointzuk diren ikusten ahalko dugu (AMAP, baratze partekatuak, laborantza herrikoia eta iraunkorra, eko-eraikuntza, bizitegi partekatuak, ekonomiaren bertokiratzeta, zirkuitu laburrak, bidezko merkataritza, ingurumenaz heziketa, energia aurrezteak, energia berriztagarriak, lurralde antolaketa eta hirigintza politika alternatiboak, autoari alternatibak, tokialdatze eztiak, autopartekatzea, banku etikoak, tokiko monetak, aurrezki sistema solidarioak, osasun alternatibak, birziklatze guneak, zero zabor ondorkinen bilketa, energia klima bihurgune planoak, aberastasunen eta lanaren partekatzea, ekoizpenaren sail-aldaketa soziala eta ekologikoaren urratsak, trantsizio ekimenak...), gaurdanik bakotxari (gizabanakoa, elkargoak, elkarteak eta egitura desberdinak) bere berotegi efektuzko gas isurketen apaltzea ahalbidetzen dutenak.

Alternatiba eguna gertatzen denez 2014ko martxoko Frantziako Herriko hauteskudeetatik 6 hilabete lehenago, leku berezi bat izanen da herri eta herri elkargoen alternatibentzat, energia eta klimaren gaitiaz hamabost bat arlotan.

Ongi bizitzea:

Egun guzian, Baiona hiri erdiko ostatu eta elkartearen gela desberdinetan, tailerrak, erakusketak, proiektzioak, eztabaidak eta hitzaldiak izanen dira hemen edo hexagonoan, baina ere Hego Euskal Herrian eta Europako eskualde desberdinetan diren alternatiba berriak edota esperimendatzeko desberdinen erakusteko.

Gune askatua haurrentzat joko guneak, familientzat ibilaldiak, mota guzietako musika animazioak, karrikako antzerkia, olerkia, irakurketa publikoak etab... izanen dira.

Auzoaldeko biztanleak, baina gaineratekoak ere, auzoaldeko bazkari bat, zintzur-bustitze inprobisatuak, karrikan joko desberdinak etab... antolatzerat gomiatuak izanen dira.

Auzoaldeko jatetxeak antolaketa barne izanen dira eta tokiko mozkinekin egin menuen proposatzerat gomiatuak izanen dira, bazkari biologiko edo begetarianoak proposatuak izanen direlarik gainerateko lekuetan. Merkatu biologikoak, etxaldekoak edo bidezkoak, truko guneak eta doakotasun eremuak, konponketa tailerrak antolatuak izanen dira hiri erdiko plaza desberdinetan.

Egitarraren barne izanen diren komertsio, ostatu, jatetxe, ekoizle, elkarteak etab... Eusko tokiko moneta ekologiko eta solidarioaren (<http://www.euskalmoneta.org/>) kideak izanen dira. Egun guzian osoki Euroko ibiltzeko parada ukanen dugu beraz (euroak ere onartuak izanen dira hala ere). Herrixkan zehar aldaguneak izanen dira ezker eskuin.

Bankuak eta kaderoak instalatuak izanen dira han eta hemen familiekin eta adineko jendeekin ateratzeko parada ukan dezaten eleketan artzeko, begiratzeko, denbora hartzeko...

Neurritasun uros baten jendartea:

Hots, bakotxa gomiatua da karrikan bere ganatzea egun hortan eta horrela erakusteko nola autoaz askatua den eta irudimen popularrari eskainia den hiri-eremua beste bizi baldintza batzuren, jendeen arteko

harremanen eta lotura sozialen sortzaile izaiten ahal den.

Horrek ere erakutsiko du, eraiki nahi dugun karbono-ondoko jendartea urosa, adiskidetsua, besta eta elkartasun girokoa izanen dela.

Pena litzateke austeritatearen borrokatzea... latz edo gogor izanez. Eta gainera, hain animatzaileago da trantsizio ekologikoa eraikitzea besta giroan !

Ondorioz, Alternatibak ukanen ditu hainbat itxura: besta popularra eta mobilizazioa, alternatiba zehatzen erakus leihoa, sartzea urrik izanen duen karbono-ondoko herrixka adiskidetsu, alai eta ikasgarria, lagun edo familia giroan bisititzen ahalko dena...

Alternatibaren helburua:

Denek memorian argi dugu 2007an, KAGAT/GIEC edo klima aldaketari buruzko gobernu-arteko aditu taldeak argitaratu zuen bere 4. txostena, zer kezka zabala sortu zuen. Tamalez, garai hartarik landa egina izan diren ikerketek erakusten dute 2007an aurkeztuak izan ziren fenomenoak larritzen ari direla gero eta lasterrago.

KAGAT/GIEC-aren 5. txostenaren argitaratzea aurreikusia da 2013ko irailaren 26an. Data hortan da txostenaren lehen zatia aurkeztua izanen. Hain xuxen ere beroketa klimatikoaren elementu zientifikoak ukanen dituen, tenperaturei buruzko datu nagusienak ukanen dituen bai eta ere ondorio zuzenei buruzkoak eta proiektzio ezberdinak aurkeztuko dituen.

Erabaki hartzaileentzat bai eta jendartearentzat alarma oihu bat izan behar luken txosten hori nahi ginuke auzkertz eta indartu, bertako egiaztatze nagusienak eta gomendioak ahal bezain zabalki ezagutaraziz.

Egia da, holako txosten batek jendeak laguntzen ahal dituela egoeraren larritasunataz eta okerre saihesteko mobilizatzearen premia konzientzia hartzen.

Baina ber maneran ere osoki paralizatzen edo geldiarazten duen efektua ukaiten ahal du, ezinaren sentsazioa

pasarazten ahal eta arazoaren haunditasunaren aintzinean eta haren aurrean zer eta nola egin ez jakitearen aintzinean animoa gal arazten ahal du.

Alternatibaren xedea da ezintasun sentimendu horren borrokatzea. KAGAT/GIEC-aren txostena berriaren karietarat momento indartsu bat antolatuz, ekitaldi azpimarragarri bat plantan emanez bertan erakusteko baktzak bere mailan eragiteko ahalak dituela.

Alternatibak ondoko mezua aintzinean emanen du: beroketa klimatikoaren aurkako aterabideak badira, trantsizio energetikoaren bideak gero eta gehiago badira, eta mundu mailan milaka elkarrek, norbanakok, herrik eta eskualdek hartzen dituzte. Milaka alternatiba horiek egunerokotasunean jendarte neurritsuago, zuzenago, adiskidetsu eta solidarioago baten eraikuntzan parte hartzen dute.

Bide horiek hartu behar dira, posible den arlo guzietan, orain eta hemen.

Denek elgarrekin, mundu hobe bat eraikitzen ahal dugu desafio klimatikoa gaindituz.

Urrun helduko den boz bat:

Alternatibaren mezuak Baiona eta Euskal Herriko mugak nasaiki gaindituko ditu.

Partaidetza bat adostua izan da Bastamag eta Reporterre komunikabide altermundialista eta ekologistekin, hauek Alternatiba Herrixkan egonen diren alternatiben oihartzun erregularra izan daitezen eta honen prestakuntza segi dezaten.

Hainbat pertsonalitatek babestuko dute Alternatiba, lehena « Indignez Vous ! »-ko idazlea, Stéphane Hessel delarik.

Alternatibak, tokiko mailan bezain bat nazio arteko mailan iraganen den sentsibilizazio eta informazio lan luze baten eramateko parada eskainiko du: Tuniseko Munduko Foru Soziala, Turkiako Istanbulgo klimari buruzko Global Power Shift topaketak, Greziako Atenasko Altersummitenak, agorrila hastapeneko Notre Dame des Landes-eko elgarretaratzeak, Europie europar Festibala Toulousen, etab...

Alternatiben herrixka osatuko duten gune desberdinak:

1. Laborantza/ Elikadura	Bio eta baserriko merkatua, bidezko laborantza eta iraunkorra, lur erabilpenaren menderatzea, etxaldean autonomia energetikoa, plantatzeak, bidezko merkataritza etab.	8. Kontsumo arduratsua	Eko-erosketak, consom'acteur, pubaren aurkako borroka, Etxe aurreztaile erakusketa Turismo arduratsua, Zuhaurek egin, Besta jasangarriak
2. Ekonomiaren birkokapena	Inter-Amap Zirkuitu laburrak Tokiko moneta etab.	9. Hondarkin eta birziklatze esparrua	Birziklatzetegiak, baliabidetegiak, mailegu zentroak, konponketa, herri atelierak, Zero Hondarkin Sistema etab.
3. Finantza arduratsua	Tokiko moneta Tobin Zerga, NEF, Tokiko eta bidezko aurrezki sistemak, Herrikoa, CLEF, CLEJ etab.	10. Garraioa eta mugikortasuna	Garraio kolektiboak, busa gunean berean, bizikleta, PDE, baserri guneko autopartekatzea, TAD, auto-partekatua, GPII-en aurkako borroka, etab.
4. Uraren esparrua	Arrantza, Itsasoak Ur Baliabidea Bidezko Surfa	11. Eko-eraikuntza & lurralde antolaketa	Hirigintza alternatiboa, Eko-eraikuntza, etxebizitza partekatua, Eraikinak Berriztatze termikoa Gune berdeak
5. Denen ondasunak eta kultura	GEO, haziak, oihanak, Osasuna, Herri hezkuntza Programak, informatika eta internet askeak Prentsa alternatiboa, Kontra kultura	12. Energia	Neurritasunari lotu alternatibak, eraginkortasun energetikoa, eta energia berriztagarriak, enercoop, Energia Partekatua etab.
6. Elkar laguntza eta partekatze elkartasun esparrua	Berreskuratzea, Trukea, SEL, urrikakotasuna erabilera / gehiegizko erabiltzearen kariotzea, Urririkakotasun gunea	13. Klima eta nazio arteko borroka	KAGAT Txostena, Klima Logoa, BEG murrizte helburua, aztarna ekologikoa, zor ekologikoa, PCET, agenda 21, VEC, etab.
7. Ekonomia jasangarria	Lana eta aberastasunen partekatzea, aztarna ekologiko berdinzalea, Ekonomiaren birmoldatze sozial eta ekologikoa, ESS, kooperatibak etab.	14. Ingurumenari sentsibilizazio gunea	+ Haurren xokoa

**ELGARREKIN, MUNDU HOBE BAT ERAIKI DEZAGUN,
ERRONKA KLIMATIKOARI AURRE EGINEZ**

ALTERNATIBA

Alternatiben herrixa



BAIONA 13/10/06



Denak gomit zirezte!

**Antolaketa orokorra finkatzeko asteburu/bilkura garrantzitsua
maiatzaren 3, 4 eta 5a (ostirala, larunbata eta igandea)**

Manu Robles-Arangiz Fundazioan
(20, Cordeliers karrikan Baiona ttipian)

Gai zerrenda

-Alternatiba proiektuaren aurkezpena.

-Gomitatu behar diren alternatiben zerrenda (elkarte, egitura, esperientzia, tokiko kolektibitateak etab...) 14 gune tematikoen osatzeko : Laborantza/ Elikadura, Ekonomiaren birkokapena, Finantza arduratsua Uraren esparrua Denen ondasunak eta kultura Elkar laguntza eta partekatze elkartasun esparrua Ekonomia jasangarria Kontsumo arduratsua Hondarkin eta birziklatze esparrua Garraioa eta mugikortasuna Eko-eraikuntza & lurralde antolaketa Energia Klima eta nazio arteko borroak Ingurumenari sentsibilizazio gunea

-Laborari, artisau, ekoizle, etab... izen emaiteak. Egitarau ofizialari lotzen diren komertsioak. Euskoaren leku eta parteak.

-Bazkariak, beste motako janariak, kanpoko ostatuak, barneko ostatuak, erakusmahaiak

-Animazioak : karrikako musikariak, karrikako arte eta antzerkia, musika taldeak

-Komunikazio kanpaina

-Nola antolatua izanen da Alternatiba : talde antolatzailearen osaketa eta ibilmoldea, lan zerrendak

-Partaidetzak

"Elgarrekin, mundu hobe bat eraiki dezagun, erronka klimatikoari aurre eginez!"

Stéphane Hessel, Alternatiba 2013ko ugazaita

LAGUNTZAILEEN IZEN EMAITE FITXA

ALTERNATIBA

Alternatiben herrixka



BAIONA 13/10/06 !



Alternatiba eguna, urriaren 6an igandearekin Baionan iraganen den Alternatiben Herrixka, ahal bezain ongi antolatzeko, 450 laguntzaile bildu behar ditugu.

Laguntza mota guztiak ongi etorriak dira, gertakaria baino lehen, ondotik edo egunean berean. Bete behar diren lanpostuak ugariak eta anitzak dira : zerbitzua, sukaldea, haurren xokoaren kudeaketa, elektrizitatea, animazioa, informatika, instalaketa edo desmuntaketa, apainketa, mac gyver taldea, etab...

Horregatik deia zabaltzen dugu gaurdanik : egun hori arrakastatsua izan dadin, milesker laguntza ematea, laguntzaile bilakatuz. Milesker zure inguruan aipatzea, zure lagunei, planetaren geroaz, jendarte bidezkoago, iraunkorrago eta desiragarriago baten eraikuntzaz sentsibilizatuak direnei aipatuz.

Milesker izena ematea oraindanik

Deitura :

Izena :

Tel :

Herria :

Emaila (HAUNDIZ OTOI!) :

Adina :

Lanbide edo gaitasunak (zerbitzua, sukaldea, informatika, haurren kudeaketa, elektrizitatea etab...):

Arduradun/erreferente gisa engaiatzeko prest naiz:

- ☐ Bai
☐ Ez

Libro naiz eta lagunt dezaket :

Nahiago nukeen gaia edo/eta sektorea :

- ☐ Oraindanik
☐ Aste bat lehenago
☐ Alternatiba baino 3 egun lehenago
☐ Alternatiba baino egun 1 lehenago
☐ Alternatiba egunean - 13/10/06a
☐ Biharamunean
☐ Ondoko egunetan

Antolaketa orokorraren asteburu/
bilkurarat etor naiteke (maiatzaren 3,
4, 5a)



**Beterik igorri : 20 Cordeliers karrika 64100 Baiona edo mailez
info@bizimugi.eu edo faxez : 05 59 59 33 23**

Xehetasunak : 05 59 25 65 52 eta www.bizimugi.eu